



Uria kudeatzeko eskubidea

Uriko azoka: gentrifikazioa eta turistifikazioa

Gizon eta emakumeok ezinbestekoa dogu ingurua aldatzea geure beharriak asetzeko, alde batetik, biziraupenerako oinarrizko diran elikadura, garbitasuna edo aterpea eta, bestetik, gizarte, politika edo kultura erako konplexuak. Beharrezkoa dogu gure ingurua bizitzeko egoki bihurtzea. Gaur egun, giza kokalekua bizitzeko egokitzat jotzen da, gizon eta emakumeen garapenerako hainbat baldintza beteten dauanean: oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturak jades-teko aukera, bizitzeko eremu babestua, ekoizpen eta komunikaziorako, aisialdirako, ordezkapenerako, zainketarako eta trukerako eremuetara iristeko aukera.

Horregaitik, Giza Eskubide Sortubarrien Adierazpenean (2007), uria kudeatzeko eskubidea jasoten da.

“Eskubidea urian, azken batean, persona guztiek, eta alkarte osoak, urian euren garapen politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikorako baldintzak aurkitu daiezala”.



David Harvey geografo eta teoriko sozial britaniarrak dinoanez:

“Uria kudeatzeko eskubidea ez da, beste barik, dagoeneko urian dagoan horretarako eskubidea, uria, guztiz desbardina dan zerbait bihurtze aldera, eraldatzeko eskubidea baino. Izan be, ze eratako uria gura dogun dago alde batetik eta, honi estu lotuta, zelako gizarte lokarriak, izadiagazko ze hartu-emon, ze bizimodu, teknologia eta balio estetiko nahi dogun. Urirako eskubidea, uriko baliabideak jades-teko gizabanakoaren eskubidea baino askoz gehiago da: uria aldatuz geure burua aldatzean datza. Gainera, gizabanakoarena ez ezik, guztion eskubidea da, eraldaketa hau, nahitaez, urigintza-prozesuak birmoldatzeko ahalmen kolektiboaren gauzatzearen menpe dago-eta. Gure uriak eta geure burua eraikitzeke eta berre-raikitzeke askatasuna da, erakutsi gura dodanez, gure giza eskubiderik preziatuenetakoa, baina, aldi berean, ahaztuenetakoa”.

Kontzeptu hau, batez be, gizarte bidegabekeriaren eta bazterketaren aurkako uriko eta taldeko prozesu, aldarrikapen eta burrukak sendotzera zuzenduta dago. Eta definizino horretan, herritarrei aldaketaren gizarte eragile lez emoten jaken konfiantza da zutabe nagusia.



Uriak hazi egin dira biztanleriaren densidadeari eta hedaturari dagokienez, baina orain ez dira alkarregaz bizitzea ahalbideratzen dabeneuskarri fisiko eta azpiegitura. Merkantzia erraldoi, sofistikatu eta irrikatu bihurtu dira. Espazio- eta harreman-egiturek merkatu-balioa erdietsi dabe, gune historikoak helmuga turistiko edo kanpoko merkataritza-gune bilakatu dira, kanpoaldeak lotegi edo hondar-eremu eta gizarte eta kultura ekoizpena aisia eta entretenimendu. Uria, orain, «hazkuntza-makina» da eta bere garapena errentagarria da enpresa- eta finantza-eliteentzat, honeentzat lurzorua eta eraikitako eremua gainbalioa atarateko merkantzia da-eta.

Hori dala-eta, uria, gizarte ugalketa bermatzen eben erakundeen pribatizazio eta finantziarizazioaren aurrean, alkarteek egokitzeko dabene gaitasuna proban jarten dauan eremu bihurtu da.

Azkenaldian, hedabideetan bolo-bolo dabilzan berba edo neologismoak, esate baterako, gune historikoen gentrifikazioa, turistifikazioa, disneyfikazioa edo museifikazioa, uria merkantzia huts bilakatu izana adierazoten daben gertakariak dira. Mundu osoko uriak kapitalismoaren biziraupenerako aukerako leku bihurtu dira; gure uriak kontsumitzeko eta kontsumoa garatzeko eremu baino ez dira. Prozesu eta garapen honeek gure Urirako eskubidea mehatxatu egiten dabe. Zehaztasun handiagoz azalduko doguz gertakari honeetako batzuk.

GENTRIFIKAZINOA

Gaur egun, honan ulertu daiteke gentrifikazioa: gizarte-eta ekonomia-klase jakin batek uriko eremu bat beste klase baten kalterako berrokupatzeko prozesua. Eremu honek, jeneralean, bertan behera itzi dauan prozesua jasan izan dau eta andeatuta aurkitzen da. Gizarte klase barriak erosteko ahalmen handiagoa eta beste beharrizan batzuk ditu eta horrek ondorioak eta aldaketak (uri-birmoldaketa, hobekuntza materialak, hobekuntzak dibertimentuzko eskaintzan, hornikuntzak, kultura eta gizarte aldaketak, e.a.) dakar, hau da, lurzoruaren balioa handitzea eta bizitzaren kostuak gora egitea.

Jatorrizko klaseek (normalean klase apalak eta erosteko ahalmen ertain edo txikia dabenak) ezin dabe jasan bizitzaren kostuaren gehikuntza eta gizarte eta kultura aldaketa hau eta derrigorrez itzi behar dabe uria eta uri inguruko lekuetara jo.



Hausnartzeko...

-Gentrikazioa eta turistifikazioa lako prozesuetan merkatuaren egitekoa errazten daben eragileak ete gara? Ba ete dakigu gure urian honako prozesurik dagoan ala zelan agertzen diran? Parte hartzen ete dogu gure auzoetan prozesu horreei aurre egiteko ekintza eta manifestazioetan?


-Konturatzen ete gara, alkarte osoak urirako dauan eskubidea errespetatzen dauan uriaren birsorkuntzak uri-kontsumoaren eta urian kontsumitzearen eredu guztiak barriro hausnartzea eskatzen dauala?

- Askotan, uria merkaturatzeko prozesu honeek ezagutzeaz gainera, eruon kontra agertzen gara eta jokutzen dogu, baina, ze jarrera dogu beste uri edo auzo batzuk bisitatzen doguzanean?

TURISTIFIKAZINOA

Hauxe litzateke turistifikazioa kontzeptuak adierazoten dauana: espazioaren eskaintza, instalazioak eta zerbitzuak leku haretako bertako auzotarren beharrizanak asetzera ez ezik turistaren beharrizanak asetzera zuzentzeak lekuko alkartean dauan eragina.

Hau da, gentrifikazioa, gizarte klase bat beste baten kalterako lekualdatze lez azaldu dogu eta turistifikazioaren kasuan, leku jakin batean bizi diran guztiak interes turistiko handi batetik lekualdatzea gertatuko litzateke, helburua turistaren beharrizanak asetzea izanda.



Ekintzarako

-Gure oporretan, beste uri batzuk bisitatzen dogunanean, turismo inbasiborik, lekuko auzotarren bizi-baldintzak errespetatzen ez dituan turismorik ez egin. Jakinaren gainean jardun, ze ostalaritza-motatan kontsumitzen dogun eta non hartzen dogun jakinda, uriko dinamiken aurka doazan turismo-ereduak sortzen dabezan merkataritza-establezimendu eta enpresak saihestuz.

-Geure urian, batez be lekuko eta auzoetan sustraitutako dendetan kontsumitu, honeek multinazionalen edo gentrifikazioa sortzen daben negozioen gaintik lehenetsiz.

-Baliabide interesgarriak, gaiaren inguruko formakuntza zabaltzeko:

Irakurketa gomendagarria: [Merkatua uriaren aurka](#)
 Gentrifikazioa Bilbon: [Gentrifikazioa aldea zaharrean](#)
[Uria-marka Bilbo Hiriburua](#)
[Gentrifikazioa SanFrantziskon](#)
 Turistifikazioaren bideoa: [Equipo de investigación](#)